

PERTSONA IZENDEGIAREN HIRUGARREN ARGITALPENA

Gasteiz, 1981-XI-27

J. M.^a Satrustegi

Pertsona Izendegia agortuxea omen dago, berriz ere, eta jendea eskez dator. Euskaltzaindiko ordezkarietatik sortutako kezka da. Hori dela eta, une honetan pertsona izenen arazoa legez zertan dagoen ikusteko txosten bat eskatu zidan urriko batzarrean Euskaltzaindiak.

Beste argitalpen baten lanak hasi aurretik helburuak finkatzeari oso ongi derizkiot. Prozedura mugatzea ere beharrezkoa ikusten dut ez gaitezen itxurakeria hutseko tirabira antzuetan erre.

Izendegi honen aurre-historia XIX. mendeko Egutegietan mamitzen hasten da. Arana-Eleizalderen zerrendak, besteak beste, kontuan hartzekoak dira, bide berri bat urratu baitzuten. Gogoko ala ez historia da lan hauen eragina eta izan duten ondorioa.

Gure egunetan, 1966.ko "Nomenclátor euskérico de nombres de pila" bildumarekin hasi zen lehenengoz Euskaltzaindiaren izena alor honetan agertzen, babesa emanez besterik ez bazen ere.

1972.ean Iruñean argitaratutako Euskal Izendegiarekin loturik dago, hala ere, geroztik Euskal Herrian gertatu den pertsona izenen aldaketa zabal. Handik bost urteetara, berriztatu eta ugaritu ondoan agertu zen, 1977an, zerrenda honen bigarren argitalpena. Hauxe da hirugarren aldiz kaleratzeko dugun parada.

Datozen denbora berriei egokienik nola erantzun diezaiokeen ikusteko ordua da, beraz denontzat. Negu sarreran ereintza aurreko lurlantzea besterik ez da, nik txosten honekin gaur adierazi nahi dudana.

1. Helburuak

Hamar urtez pertsona izenen aukera eta erabilkeran aldaketa haundiak gerta dira Euskal Herrian. Aitama gazte eta seme-alaben artean edozein belarrik suma dezakeen doinu berrien muga sortu da etxeetan.

Bat batean ez baino sailkaturik etorri dira gauzak, eta egoera bakoitzaren lekuko dira Euskal Izendegiaren argitalpenak. Ikus dezagun nola:

a) *Lehenbiziko argitalpena: 1972.* Giro txarra zegoen euskal gauzentzat. Legez bazterturik zeuden euskal izen gehienak. Erdal itzulpen edo nola-baiteko kideetasunik zuten pertsona izenak ezin ziren erdaraz ezik, Errejistroan sartu. 1957.eko lege gogorra zuten legegizonek buruan harturik, eta batez ere 54. artikulua (1).

Horren arauera, epaile bakoitzak nahi zuena egin zezakeen eta edozein euskal izen erdaratu ohi zuten, Amaia/*Maria Fin*, Ainara/*Golondrina*, Maite/*Maria Teresa* eta Iñigo/*Ignacio* lekuko direla.

Euskaltzaindiaren helburua lehenbiziko argitalpen haren denboran euskarazko izenak nolabait sartzten joatea besterik ez zen. Ate itxiei argizulo eta zirrituak bilatzea.

Gure izenek legeztatzeke zeukaten bidea oso murrizta zen, eta honela baliatu genuen: Herrietako Ama Birjinen izenak bilduz, idazgordailu zaharretakoak jasoz eta, esku zabaleko epaileek han hemenka onartutakoen fotokopiak beste Juzgado batzutarara aurkeztuz.

Erdarazko itzulpendunak eraskin antzera sartu ziren liburuskaren azken orrietan. Ofizialtasunik gabeko hitzak.

Ohitura garrantzitsu bat sortu zuen zerrenda honek: Euskaltzaindiaren agiria eskatzen hasi ziren Errejistroetako arduradunak. Bi punduren zehaztasuna eman behar zitzaion: izen konkretu hura pertsona izendatzeko egokia zela, eta usariozko erdal izenetan kidekorik ez zuela. Gauza bitxiak ere esan ohi ziren, noski, *Nerea* neska izena, gizona *Nereo*-ren parekotzat hartuz eta abar.

Eskarien eraginaz pertsona izenen auziak abiatu ziren gure artean, eta Madriletik etorri ohi zen erabakia. Batzutan onartu arren, beste askotan ez zen baimenik lortzen. Hor dugu *Eneko* izen zaharraren kasua hiru bider Madrilen baztertua.

b) *Bigarren argitalpena: 1977.* Batzuk eta bestek Madrilen emandako urrats etsigarrien ondorioz lortua da erdaldun ez diren izenak ere legez onartzen dituen 1977.eko Erret-Legea (2).

Euskal izenei atek irekitzean, aurreko egoeran sartzerik izan ez zuten izenekin gehiturik bigarren zerrenda argitaratzea izan zen Euskaltzaindiaren

(1) Art. 54: "En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido, que debe ser, en su caso, el que se imponga en el bautismo. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en castellano." (Ley R.C. 8/VI/1957).

Art. 192: "Se permiten los nombres extranjeros o regionales. Si tuvieran traducción usual al castellano, sólo se consignarán en esta lengua" (Reglam. de la Ley de R. C. 14/XI/1958).

(2) "Art. 1.º El párrafo primero del art. 54 de la vigente Ley del R.C. de 8 de junio de 1957, quedará redactado en la siguiente forma: En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las Lenguas españolas" ((Ley 17/1977 B. O. 8 de enero de 1977).

zerbitzua. Mitologia, Historia eta Literatur mailako izenekin aberastu zen bilduma.

Madrilgo agintariei aurkeztu genien luburuska, denbora berean, eta ofizialki ontzat eman zuten geroztik Juzgadoetako arduradunek. Itzal haundia eman zion legegizonen aurrean Euskaltzaindiari, legezko behar gorria sortzean erantzuna eskura eman bait zien. Juzgado gehienetan egia eta fedea bezala ibili ohi zuten Euskal Izendegia. “Euskal izen jatortzat Euskaltzaindiak bere bigarren argitalpenean ezarritakoak bakarrik onartzen dira, eta bertan emandako grafiaz”, idatzi zidan Gasteizko Auzitegiko arduradunak.

Zerrendaren helburua egoera berrian euskal izenen bila zebiltzanei aukera eta erraztasuna ematea zen, alde batetik, eta legegizonei beren eginkizuna betetzen laguntzea.

Euskaltzaindiak, beste alde, ez zuen ordu arte bezala izen bakoitzarendako agiri bat egiten jarraitu beharrik; legez onartua zelarik bere zerrenda, liburuska zen lekuko jatorrena. Lan zama haundia kendu zuen horrekin gainetik.

Bi lanbide berri sortu zitzaizkion, orduan, Euskaltzaindiari: Euskal Izendegian agertzen ez ziren hitzak, legegizonen eskariz, pertsona izen egokiak zirela baiezteza; eta izenak aldatzeko arazoan kidetasuna aitortzea. Izen alditze kontuan, batez ere, lege aldeko ikuspegia zaindu behar zen. Erret-Legeak, aurretik ezarritako izenak aldatzeko eskubidea ematen du. Bainan, Ignacio ez da Iñigo-ren kide, edo Maria Teresak ez du Maitekin zerikusirik. Gure agiriez agerpena, orduan, Errejistrotako arduradunek beren kontu sortutako kidetasuna, une hartako eritziak kontuan izanik aldatu behar zela adieraztea zen.

c) *Hirugarren argitalpena*. Bosgarren urtera doa Euskal Izendegiaren bigarren zerrenda eta bere egitekoa bete du. Pertsona izenen legezko mugak, beste alde, ezetzatu dira gurasoei berek nahi duten izena ipintzeko eskubidea ematean, eta ia hesi gabeko eremu bihurtu da izendegiarena (3).

Bilduma berriaren helburuak, beraz, ezin dira orain artekoak izan, eta legearen ikuspegi zabala kontuan dela beharko du Euskaltzaindiak bere lana burutu. Pertsonarentzat desegokia ez den edozein izen ontzat ematen du lege berriak, hiri izen eta toponimiakoak barne direla (4).

(3) “El principio general es el de libertad de los padres para imponer al nacido el nombre que estimen conveniente y la excepción son los límites y prohibiciones contenidos en los artículos 54 de la Ley del Registro Civil y 192 del Reglamento del R.C. y que tienen su justificación en el respeto a la dignidad de la persona del nacido y en la necesidad de evitar confusiones en su identificación” (Circular 2.7.1980. B.O. 5.7.1980).

(4) “Artículo sexto. Como consecuencia de los criterios expuestos y conforme a la doctrina de este Centro, puede señalarse por vía de ejemplo, que son admisibles los nombres extranjeros que no tengan equivalente onomástico usual en las lenguas españolas; los de personajes históricos, mitológicos, legendarios o artísticos, bien pertenezcan al acervo cultural universal, bien al de determinada nacionalidad o región española, los geográficos que, en sí mismos, sean apropiados para designar persona y, en fin, cualquier nombre abstracto, común o de fantasía, que no induzca a error en cuanto al sexo.” (B.O. 5/7/1980).

Aldaketaren garrantziaz kontura gaitzen, egoera bakoitzean gure jokabidea honela izan da: legez atek itxiak zirelarik, 1972ko bilduma bultzatzaile gertatu zen eta aurrelari, gurasoei begiak eta Juzgadoetako atek irekiz. Legezko baimenaren ondotik, 1977koak aurrelari izan beharrik ez zuen eta izen euskaldunen bila zebiltzan gurasoen lagungarri gertatu zen. Edozein izen ipintzea gurasoen esku utzi duelarik lege berriak Euskaltzaindiaren erantzunkizuna beste maila batekoa da.

Nik honela mugatuko nuke Akademiaren lana:

I. Hizkuntzarekiko arauak betez hitzen joskera, idakera eta jatortasuna zaintzea.

II. Izen egokien gomendioa egitea orain arte bezala. Noski gurasoek legez duten eskubide zabalari eragozpenik jarri gabe, bere bilduma osotzen eta egokitzen ahalegindu behar luke.

III. Izen trakets eta hizkuntza aldetik desegokiak ez lituzke ontzat eman behar, desegokitasuna salatuz.

IV. Behin behingo izen arraro eta egosgaitzak ere ez lituzke, nahi eta ezpada, Izendegian sartu behar. Geroak esango du zer harrera duten herrian, eta usuarioak erakutsiko dio zer egin.

Une bakoitzeko aldaketak kontuan harturik, Izendegiaren oinarrizko egitura lehengo ildo beretik eramango nuke nik. Eta helburu nagusia gogoratuz:

– Izendegi honen asmoa ez zen egutegi orokorrean sartzen diren izen guzien bilduma izatea. Euskal izenen kopurua mugatua da.

– Munduan zehar ahotan dabiltzan izenen itzulpen edo euskaratze aspergarria ere ez. Bitxikeria egosgaitzen aldia aspaldi gaunditua du gure herriak.

– Aintzinako zaharkerien xinta-minta eta aldaketa guztien bilduma egiterik ere ez genuen nahi. Ikertzaileen lantresnak dira horiek, herriarentzat delarik Izendegia.

Bigarren argitalpenaren hitzaurreak dioenez, “geroari begiratzuz Euskaltzaindiak bere gain hartu duen eginkizuna, izen gaurkotuekin pertsona izendegi euskalduna egiten joatea da; herri joera jatorrei beti irekia, hala nola gure arbasoen kultur emaitza den kondaira, literatur, mitologia eta herri ohi-turē. Gero egiten joango den liburu irekia izango da, beraz”.

Gaurkoz helburu hau aldatu beharrik ez dut ikusten. Euskaltzaindiak esango du zer deritzon honi.

2. Edukina

Birrargitaratze honetan zenbait gehigarri sar genezake. Atal bakoitza honela ikusten dut.

Hitzaurrea. Agerpen labur baten ondotik, 1980.eko lege berria hitzez hitz eta hiru hizkuntzetan joan beharko luke.

Izen zerrenda. Zuzenketak baharrezkoak izan ohi dira horrelako lanetan, eta eskuartearen ditugun beste izen batzuekin gehitu beharko da Izendegia.

Itzulpendunen eranskina. Asko dira izen erdaldunen itzulpen bila datozkigunak. Kidekoen *erdara/euskara* izen lerrokada azken orrietan emateari oso komenigarri derizot. Lagungarri gerta daiteke askorentzat.

Bigarren eraskina. 1977.eko hitzaurrea Erret-lege garrantzitsu baten agerpena denez, dagoen-dagoenean eranskin gisa ematea proposatuko nuke. Eta oraiko lege berriak aipatzen dituen 1957.eko 54 artikulua oso entzuna, eta orduko Erreglamenduko 192 ere sar nitzake. Pertsona izenen legezko desegokitasuna zertan datzan jakiteko beharrezkoak dira. Pundu honetatik etorriko zaizkio Euskaltzaindiari biharko egunean zenbait galdera, *Ero*, *Alu* eta *Izortze* bezalakoekin.

Euskara. Hasieran erdaraz adierazitako zenbait agerpen, bigarren aldian euskaraz eman genituen. Badira, hala ere, aldatu beharrak. Bertan agertzen diren herri izenak, esate baterako, Udalen izendegia amaitu gabe zegoelakoz betiko eran ipini genituen. Euskal ortografian eman beharko dira orain.

Azala. Liburuskaren azalak badu bere garrantzia. Beste bien marrazki berarekin utziko nuke nik margoak aldatuz, jendeak antza eman diezaion bainan, denbora berean, erraz besteengandik bereziz.

Hain harrera zabala duen lan batek zehatz-mehatz pundu guziak aztertea merezi du.

3. Prozedura

Euskaltzaindiak Elkargo instituzionala danezgero, bere lanen prozedura ongi zaindu beharra du. Gogoko zaizkion lan-egiturak aukera ditzake, noski, egokienik deritzaion eran oneritzi hutsa ala ofizialtasun osoa emanez. Zalan-tzarik gabe.

Pertsona Izendegiaren birrargitalpen honi dagokionez, honako prozedura proposa niezaioke:

Arduradun bakarra. Batzorde baten esku utz lezake Euskaltzaindiak lanaren erantzunkizuna, edo horretarako izendatu pertsona baten gain. Iku-siak ikusi, batzorde lana ez da gai honetan emankor eta eragingarri gertatu. Buru belarri lanari lotuko zaion norbaiten bizkar utziko nuke eginkizun hau.

Euskaltzainen begirada. Jorra, beste alde, beharrezkoa da honelako lanetan. Izen bat aukera ala beztertzea, indar gutxiko hari mehe batzuren bai-

tan egon ohi da askotan, eta Euskaltzaindiak berak ikusi behar du une bakoitzean komeni dena.

Hori egiteko bidea, beste onartze-osoko edozein lanetan egiten duenaren antzekoa da: plangintza aurkeztu, oharrak jaso, lana burutu eta azken onarpena lortu, hilabeteko epea urrats bakoitzaren azterketarako emanaz. Ofizialtasun mailan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dira, alegia.

Txosten honen plangintza, esate baterako, Euskaltzaindiak gaur ontzat emango balu, hilabete osoa dute euskaltzainek oharrak didaltzeko. Euskal Izendegiaren ale bana ematea ere eskatuko nuke hari bidenabar zuzenketak egin diezazkioten.

Oharrak jaso ondoan lana burutzea izango da bigarren urratsa. Zuzenketak egin eta gehigarri guztiakin zerrenda ekarri beharko da Euskaltzaindiaren batzarrerera. Lehen bezala gelditzen direnak aurkeztu beharrik ez dago. Berriz ere hilabeteko epea izango dute euskaltzainek oharrak egiteko.

Azken orraztapenaren baimenarekin bidaliko litzateke inprimategira Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala dela adieraziz.

Plangintza honen ordez beste bat hobea balitz, hemen aipaturiko prozedura jarraitu behar izango luke ofizialtasuna lortzekotan.

Hau da Euskaltzaindiaren lehen mailako onartzea.

4. Zabalkundea

Pertsona Izendegia argitaratu nahi lukeenik bada Euskal Herriko enpresetan. Harrera ona izan ohi du herrian. Berak nahi duenari emateko eskubide osoa du Euskaltzaindiak. Lekukoen argitalpenak edo zabalkunde gutxi-ko beste ekintzaren bat egin duenari eskaintzea ere aipatu izan da noizbait.

Harremanetan sartzera oso kontuan eduki behar ditugun puntu batzu badira, orain arte izan ditugun zenbait eragozpen zuzen ditzagun.

Banaketa. Aurreko argitalpen biak bankuetxe batek egin zituen bezeroei doan emateko. Euskaltzaindiari nahi hainbat bidali ohi zizkion, noski, eta banaketa nagusia ordezkarietan egin izan da.

Liburu dendetan aurkitzerik ez zegoela esan nahi du horrek, eta banaketa aski arraroa gertatu da. Eragozpen haundia zabalkunde mailan. Nolabait liburu dendetara helarazteko bide bat lortzen ahalegindu behar genuke hemendik aurrera.

Argitaletxeari esan diezaiokegu haste hastetik, bezeroei berak doan emango badie ere, liburudenden bidez banaketa egin nahi genukeela eta horretarako zer-edo-zer ordaindu behar izango dutela erostunek. Argitale-

txearen mesedetan izango da, beste alde, bezero ez dituen jendeetara helduko bait da bere izena.

Kopurua. Berrogeita hamar eta hirurogei mila ale atera ziren lehenbiziko argitalpen bietan. Nere ustez, ez da aski. Guk geuk hogeita bost bat mila beharko genituzke beste bost urtez dendetara banatzen joateko. Bat batean bankuetxe batek ematen dituen liburuak ez dira ongi jasotzen, eta behar ordua datorrelarik eskuratzetik ez. Gero banan banaka joaten diren horiek dute beren eginkizuna betetzen. Ordezkaritzetako langileek badakite horren berri.

Kontuan izan dezagun gainera, ehun mila ale argitaratu zituela Bizkaiko Aurrezki Kutxak norbaiten Izendegia banatu zuelarik. Euskal Herri guztirako ez da gehiegi kopuru hori.

Lansaria. Euskal Izendegiak inork uste baino ordu gehiago darama berekin. Gutxi edo asko, urte guziko lana da izenen berri batzuei eta besteei ematea. Hemen dut bost urte hauen lekuko, hartutako gutunen bilduma.

Galdera gehienak, horrelako izen nondik datorren eta zer esan nahi duen jakiteko izan ohi dira. Azken aldi honetan Euskal Herritik bakarrik ez, Estaduko beste lurralde batzutatik ere badatoz galdezka.

Argitalpen bakoitzari buruz, beste alde, idazgordailu honetan dauden ohar guztiak ikus behar dira eta sailkatu. Txosten honetatik hasi eta azken onarpena lortu arte ia hiru hilabeteko lana izan daitekeela uste dut.

Hori guztia egin behar izan nuen duela bost urte eta inork ez zidan mekanikaren zintarik ere ordaintzen lagundu. Hori da, beste alde, gutxiena. Nik dakit zer eskerra jaso nuen gero, eta horrek nau zinez nahigabetzen.

Ez dadin berriz horrelakorik gerta, lana neurri batean ordaintzea eskatuko nuke beste edozein eginkizun bezala. Eta aurrez ikusi behar da horren etorkia.

Nik esango nuke, liburu dendetan saldutakoen laguntzatik eman behar litzaiokeela egileari bere lansaria. Ihuntzian idiari ez omen zaio muturrekorik ezarri behar, eta langileari zor zaio bere saria.

Ez dut niregatik esaten; edozeinentzat balio du.